

2002KO APIRILAREN 25EKO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta biko apirilaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Joseba Hernandez Madinabeitia, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Juan Manuel Serna Portugal.

Jose Luis Otamendi Romero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2002ko martxoaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN HASERAKO ONARPENA.-

Udal honek, 6 Hirigintz Areak zaharren egoitzerako eraikin bat eraikitzea ahalbidetuko duen Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala planteatu du. Dokumentua Roberto Garcia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak idatzitakoa da.

Udalak, 2002ko urtarrilaren 22ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, dokumentuaren abantzea jendaurrean jarri zuen hogeita hamar eguneko epean eta denboraldi horretan iradokizun bat jaso zen. Beste iradokizun bat dokumentua jendaurrean jarri aurretik aurkeztu zen.

Udal Osoko Bilkurak, 2002ko martxoaren 21ean egindako batzarraldian, iradokizunak ez estimatu eta abantzea, zegoen bezala, onartzea erabaki zuen. Baita ere talde erredaktatzaileari behin betiko dokumentua idatz zezan agintzea erabaki zuen.

Behin betiko dokumentua aurkeztu da eta Hirigintza Batzordean informatua izan delarik, Osoko Bilkurara aurkezten da bere haserako onarpenerako.

...///...

...///...

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du lehengoan esandako erizpideekin jarraitzen duela eta beraz abstenitu egingo dela.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), Udala 11 lagunek osatzen dutelarik eta beraz Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- 6 Hirigintz Areak zaharren egoitza baten eraikuntza ahalbidetzera zuzendutako Arau Subsidiarioetako aldaketa puntual honi haserako onarpena ematea.

2.- Haserako onarpen honi buruzko iragarkia hilabete bateko denboraldian jendaurrean jartzea, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta El Diario Vasco eta Egunkaria egunkarietan argitaratuz.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako 2002ko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko 1 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako Espedientea irakurri ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri da. Honek aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola adierazten du, zehazki Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Toki Entitateen Aurrekontu-Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei egokitzen zaiela.

Era berean, Haziendako Batzorde Informatzaileak formulatutako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketaren xehetasunak ematen ditu eta esaten du kreditu gehigarri bidezko kreditu aldaketa honetan alde batetik San Joseko berrurbanizazio lanak hasteko datorren urteko aurrekonturako 421.000,00 eurotako konpromisuzko kreditua onartzea planteatzen dela. Bestalde aurtengo gastuen aurrekontuan 67.468,24 eurotako kreditu gehikuntzak planteatzen dira eta azkenik aurtengo sarreraren aurrekontuan dagoen epe luzera jasotako maileguen partidan 1.309.485,36 eurotako baja planteatzen da. Eta guzti hau iazko diruzaintzako gerakinaren kontura.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du aurrekontuan ere abstenitu egin zirenez abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du kreditu aldaketaren edukina ez zuela ezagutzen eta uste zuela San Josekoa bakarrik izan behar zela. Esaten du baita ere San Josekoa bere alderdia aspalditik errebindikatzen aritu den gaia dela eta gastuetako zenbateko garrantzitsuena dela eta horregatik alde bozkatuko duela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez haziendako batzordea aste honetan bertan egin dela, eta bilera horretan kreditu aldaketa honi buruzko informazio guztia eman zela.

...///...
...///...

Alkateak esaten du saiatuko dela aurrerantzean ahalik eta informazio gehien bidaltzen baina eskatuko lukeela baita ere zerbait iristen ez bada Udaletxean eskatzea.

Dagokion eztabaidaren ondoren botutara jarri eta, aldeko 6 botuz (EAJ, EA, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta 4 abstentzioz (EH), honako hau

ERABAKI DA

Lehena.- Datorren urteko aurrekontuan 421.000,- eurotako konpromisuzko kreditua onartzea San Joseko Birrurbanizazio Proiektuaren lanak burutzeko.

Bigarrena.- Udal honetako aribideko ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko 1 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako espediente onestea, formulatutako proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU-GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izendapena	IGOERAK
II	Ondasun arrunt eta zerb. gastuak	16.587,93
VI	Inbertsio errealak	50.880,31
IGOERAK GUZTIRA		67.468,24

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izendapena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako Gerakina	67.468,24
GUZTIRA		67.468,24

Hirugarrena.- Jendaurreko informaziorako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- SAN JOSEKO BERRURBANIZAZIO PROIEKTUA ETA LANEN KONTRATAZIOA.-

INJELAN, S.L.ko Iñaki Laskurain Gisasola bide ingenerioak San Joseko Auzoko Berrurbanizazio Proiektua idatzi du. Proiektu honen aurrekontuaren zenbatekoa, Osasun eta

...///...

...///...

Seguritate azterketa eta Kalitate Kontrola barne MILIOI BAT BERROGEITA LAU MILA BERREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI KOMA ZERO BI (1.044.247,02) EUROtako da, B.E.Z. barne.

Bestalde proiektu honen lanak burutzeko kontratazio espedientea prestatu da. Lanak prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzea planteatzen da. Bere espedientean aurkitzen den berariazko administrazio eta ekonomi baldintzen pleguan zehazten den bezala, erizpideak prezioa (%90) eta epea (%10) izango dira. Lanen burutzea 2002 eta 2003 urteetako aurrekontuetatik finantzatuko da.

Alkateak esaten du epeak murriztearren ea zer irudituko litzatekeen esleipena egitea alkatearengan uztea.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez-ohiko bilkura ere egin litekeela.

Alkateak esaten du hori ere horrela dela eta bere proposamena bertan behera uzten du

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- San Jose Auzoaren Berrurbanizazio Proiektua, Iñaki Laskurain Gisasola bide ingeniarioak idatzitakoa, onartzea.

2.- Lanak burutzeko kontratazio espedientea onartzea.

VI.- 3 SEKTOREKO UDALAREN LURSAILAK ENKANTERA ATERATZEA.-

3 Sektoreko Birpartzelazio Proiektua egin zenean eta Udalari dagokion aprobetxamenduaren % 10a dela eta, 22 eta 24 lursailak eta 7 lursailaren zatiezinezko erdi bat Udalari esleitu zitzaizkion.

Orain, lursail hauek enkante bidez saltzea planteatzen da horretarako egin den ekonomi eta administrazio baldintzen pleguaren arabera.

Alkateak esaten du plegu horretan zehazten den modura, eta udal arkitektoak egindako txostena jarraituz, 22 eta 24 lursailen lizitazio tipoa 135.810,10 € izango da bakoitzarena. 7 lursailaren zatiezinezko erdiarena berriz 67.905,05 €tako da. Baita ere esaten du 22 edo 24 lursailaren jabe egiten denak epe bat izango duela eraikitze oinarritzko proiektua aurkezteko. 7 lursailaren zatiezinezko erdia erosten duenari ez zaio epe hau jartzen. Pleguaren gainontzeko xehetasunen azalpena egiten du baita ere.

Eztaidabaida txiki baten ondoren, oinarritzko proiektua aurkezteko epea lau hilabetekoa jartzea erabakitzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) galdetzen du ea hau eraikitzeko sustapen pribaturako al den.

...///...

...///...

Alkateak erantzuten dio baietz.

Serna zinegotziak esaten du herri lurzorua babes ofizialeko etxebizitzetarako izan behar dela eta ez sustapen pribaturako.

Alkateak erantzuten dio hortik ateratzen den dirua horretarako izango dela baina zentzurik ez lukeela etxebizitza bakarreko etxeak eraiki daitezkeen gunean Udalak babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea.

Serna zinegotziak abstenitu egingo dela esaten du.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE) 3 Sektoreko udal jabetzako lursail eraikigarriak enkante bidez besterenganatzeko kontratazio espedientea onartzea erabakitzen du.

Une honetan Irantzu Amundarain zinegotziak bilera utzi egiten du.

VII.- 1 HIRIGINTZ AREAKO 3 BURUTZE UNITATEKO JABEEKIN HIRIGINTZ HITZARMENA.-

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoa behin betikoz onartuz izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren 1998ko azaroaren 24ko akordio bidez.

Planeamendu garapeneko dokumentu honek jasotzen dituen zehaztapenen artean 3 Burutze Unitatea mugatzen da eta bere kudeaketa kooperazio sistema bidez egitea xedatzen du.

1 Hirigintz Areako 3 Burutze Unitatearen Birpartzelazio Proiektua 2000ko uztailaren 21eko Alkatezaren Ebazpen bidez onartua izan zen. Proiektu honetan B.E.B.E.ak mugatzen zuen lursail eraikigarri bakarra proindibisoan esleitzen zaie ondoren zehazten diren titular eta ehunekoetan: Miguel Tomas Aguado Artola, % 13,45; Ana Maria Iberuaga Vitoria eta M^a del Carmen Vitoria Arratibel, % 39,01, lehenengoak jabetza soila eta bigarrenak bizi den arteko usufruktua; Arrasateko Caja Laboral Kooperatiba, % 15,23; Lazkaoko Udala, % 10; Jose Maria Echeverria Lasa Maria Jose Larrañaga Sasianbarrenarekin ezkondua eta Jose Angel Larrañaga Sasianbarrena eta Milagros Redrado Lapeña senar-emazteak, % 22,31. Jabetzatik eratorritako eskubideez gain beste eskubide batzuek dituzten beste titular batzu daude baita ere.

Miguel Tomas Aguado Artola, Jose Maria Etxeberria Lasa eta bere emaztea Maria Jose Larrañaga Sasianbarrena, Jose Angel Larrañaga Sasianbarrena eta bere emaztea Milagros Redrado Lapeña eta Ana Maria Iberuaga Vitoria 1 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoak 3 Burutze Unitatearentzat xedatzen dituen aurrikuspenak garatu eta burutzeko akordio batetara iritsi dira, eraikin berriaren eraikuntza barne eta, halaber, eskubideen titularrak diren gainontzekoekin akordioetara iritsi dira. Eta hau horrela izanik Lazkaoko Udalari eskatu diote kooperazio sistemaz unitatea garatzeaz etsi dezala, hirigintz prozesua garatzeaz konpromezua beraiek hartuko dutelarik.

...///...

...///...

Hau horrela, kudeaketa pribatuak alderdi guztien interesak ziurtatu eta bermatu ditzazkela kontsideratuz, hirigintz hitzarmena izenpetzea planteatzen du. Hirigintz hitzarmen hau, bere espedientean aurkitzen da.

Alkateak esaten du, hitzarmenaren zirriborroan, unitate horren inguruan jarrita dauden bi errekurso erretiratzea planteatzen zela baina beraiek ez dutela hori ontzaz ematen eta horren aurrean eta hitzarmena izenpetzearen klausula hori kentzea planteatzen dela hirigintza Batzordearen proposamenean. Esaten du baita ere Udalak bere %10a enkantera atera zuela eta beraiek direla lizitatzailerak bakarrak eta ondorioz beraiek izango direla esleitzailerak.

Osoko Bilkurak, hirigintz hitzarmen hau aztertu ondoren, eta errekurso erretiratze klausulari dagokionean Hirigintza Batzordearen proposamena ontzat emanez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- 1 Hirigintz Areako 3 Burutze Unitatearen garapen eta burutzeko bertako jabetzaren gehiengoarekin hirigintz hitzarmena onartzea.

2.- Hirigintz hitzarmen hau Udalaren izenean izenpetu dezan Alkatea ahalmentzea.

VIII.- GOIEKI-KO 2001EKO KONTUEN ONARPENA.-

Jarraian Osoko Bilkuraren onarpenera jartzen dira GOIEKI, S.A.ren 2001. urteko kontuak.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin GOIEKI, S.A.ren 2001. urteko kontuak onartzea erabakitzen du.

IX.- OROBIONEREN BIRRERAKITZE LANEN 14. ZERTIFIKAZIOA.-

Orobione etxearen birreraikitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektoek, lanen 14. zertifikazioa aurkeztu dute.

Zertifikazio honen zenbatekoa HOGEITA ZAZPI MILIOI SEIREHUN ETA HAMA ZAZPI MILA ZAZPIREHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI (27.617.787,-) peseta (165.986,24 €)takoa da eta 2002ko urtarrilari dagokio.

Udal arkitekto eta arkitekto teknikoak egindako txostenean 14. zertifikazioan proiektuarekiko egon diren aldeak eta hauen zergatia azaltzen dute eta eman diren prezio desbideraketak onargarriak direla adieraziz 14. zertifikazio hau ontzat eman daitekela esaten dute.

Proiektuarekiko egondako aldeak proiektuaren aurrekontuarekiko zortzirehun eta berrogeita hamar mila ehun eta hamabi (850.112,-) pesetatako (5.109,28 €) gehikuntza suposatzen du.

Agirre zinegotziak (EH) esaten du aurrekoan emandako arrazoi berarengatik ez dutela zertifikazio hau onartuko. Gehitzen du esanez beraien ustez desbideraketa hoiek eraikitzailearen gain joan beharko liratekela.

...///...

...///...

Alkateak erantzuten dio aldaketak udal teknikariek eskatutakoak direla eta Udalak onartutakoak.

Hau honela, gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EAJ, EA), aurkako 3 botu (EH) eta abstentzio batez (PSE-EE) zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Hernandez zinegotziak (EH) txoznetako argia noiz izango den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio esanez hori jakiteko Udal Zerbitzuetako Arduradunarekin egon beharko litzakela baina uste duela hori gaur konpondu duela.

Alkateak zinegotziak festetan izango dituzten eginkizunen xehetasunak ematen ditu.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du Udalak, bere garaian, Belen Gonzalezen egoerari buruz interesatu eta herriko dokumentazioa bidaltzeari buruz konpromezua hartu zuela eta horri buruz galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio esanez bere amarekin egon zela eta helbide berria baduela, ez dakiela ondo jasota duen baino.

Irastortza zinegotziak esaten dio hel araziko diela helbidea.

Irastortza zinegotziak bileren puntualitateari buruzko bere kexua azaltzen du zeren beraiei ez zaiela itxuiten.

Alkateak erantzuten dio esanez normalean norbait falta denean galdetzen dela ea etortzekoa den ala ez.

Irastortza zinegotziak bere kexua azaltzen du baita ere zenbait dokumentazio erdera hutsean dagoelako.

Zumelaga zinegotziak erantzuten dio esanez beraiek ere batzutan aurkezten dituztela dokumentuak erderaz.

Irastortza zinegotziak erantzuten dio esanez onartzen duela kritika baina horrek ez duela bestea kentzen.

Alkateak esaten du saiatuko dela etorkizunean arazo hori konpondua izan dadin.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortzi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.